



2003/02/28ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2003ko urtarrila

EUSKAL AE-KO ERAIKUNTZAREN KOSTUAK %2,2 IGO ZIREN 2003KO URTARRILEAN

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko urtarrila, 2002ko urtarrilarekin alderatuta) %3,0koa izan da.

2003ko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %2,2 igo zen eta urtarrilerako urte arteko tasa %3,0ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera. Lan-eskuaren kostuaren hazkundeak (%4,0) markatu du urtarrileko indize orokorra, beste osagaia, lehengaien kostua, %1,0 besterik ez baita igo aldi horretan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza urtarrileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2003ko urtarrila, 2002ko urtarrilarekin alderatuta), lan-eskuaren kostuak %4,0ko igoera izan du; lehengaien kostuek, berriz, %2,3koa.

2003ko urtarrileko guztizko kostuen hazkundera antzera banatzen da bi azpisektore nagusien artean: *obra zibila* azpisektoreko kostuak (%2,5) pixka bat gehiago igo dira *Eraikinak* azpisektorekoak (%2,1) baino. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran ere, gehiago igo dira *Obra zibilekoak* (%3,8) *Eraikinekoak* (%2,7) baino.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko urtarrilean, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: *petroliotik eratorriak* (%6,6), *zementu artifiziala* (%4,2) eta *produktu asfaltikoak* (%3,3). Eta bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitsiera honako lehengaiak izan dituzte: *kristala* (%-1,8), *bulego-materiala* (%-1,0) eta *burdina eta altzairua* (%-0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2003KO URTARRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	121,8	2,2	3,0	2,2
ERAIKINAK	121,9	2,1	2,7	2,1
OBRA ZIBILA	121,4	2,5	3,8	2,5
LEHENGAIEN KOSTUA	114,6	1,0	2,3	1,0
ERAIKINAK	114,8	0,8	1,9	0,8
OBRA ZIBILA	114,1	1,6	3,7	1,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	133,5	4,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxe: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.: 945 017 505. Faxe: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---